

DEITUTAKO PLAZAREN DESKRIBAPEN-FITXA

LANPOSTUA: Zuzendari Nagusia.

KONTRATU-MOTA: Goi-zuzendaritzako kontratua, goi-zuzendaritzako langileen lan-harreman berezia arautzen duen abuztuaren 1eko 1382/1985 Errege Dekretuak arautua.

PLAZA-KOPURUA: 1

KOBTRATAZIOAREN IRAUPENA: Mugagabea

URTEKO ORDAINSARIA: 60.000 euro gordin.

EGINKIZUN NAGUSIAK: Zuzendari Nagusiaren kargua BadaLab partzuergoaren Estatutuetan definitzen da, Gobernu Batzordeak Lehendakaritzak proposatuta izendatutako kide bakarreko organo gisa, eta kualifikazio egiaztatua duten profesionalen artetik aukeratzeko da.

Partzuergoaren administrazioa eta zuzendaritza exekutiboa dagozkio, bai eta funtzionamendu operatiboaren erantzukizuna ere, bai eta jardun-arloen eta langileen zuzendaritza ere, Gobernu Batzordearen eta Batzorde Betearazlearen jarraibideen arabera jardunez.

Zuzendaritza Nagusiak, Estatutuen arabera, honako eginkizun nagusi hauek hartzen ditu bere gain:

- a. Partzuergoaren jardun-eremuak zuzentzea, eta Partzuergoaren nahiz lantaldearen burua izatea.
- b. Kontratazio-organoaren eginkizuna betetzea, sektore publikoko kontratuei buruzko legeriarekin bat etorriz, kontratu txikietarako ezarritako balio zenbatetsia gainditzen ez duten kontratazioetan. Era berean, 50.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten kontratuetan, Batzorde Betearazleak dagokion espedientea onartu ondoren, kontratazio-organoari dagozkion gainerako eginkizunak beteko ditu.
- c. Jarduera- eta zerbitzu-programak ezartzea.
- d. Partzuergoa bultzatzea, estatutuetako helburuak lortzeko.
- e. Berrikuntza- eta eraldaketa-politikak diseinatu eta gauzatzea, bai barne-eremuan, bai Partzuergoak kanpokoekin dituen harremanetan.
- f. Partzuergoaren jarduera etengabe ebaluatzea ahalbidetzen duten helburuak, ekintzak, baliabideak eta adierazleak definitzea.
- g. Lan-sistemak antolatzea eta Partzuergoaren helburuak bere egiturako maila guztiei jakinaraztea, helburu horiek eraginkortasunez lortzeko.

- h. Partzuergoak hirugarrenei zerbitzuak emateko baldintza ekonomikoak finkatzea.
- i. Partzuergoaren jardueraren jarraipena eta ebaluazioa egitea, eta horren berri ematea Batzorde Betearazleari.
- j. Gobernu Batzordearen bilkuretan parte hartzea, hitzarekin baina botorik gabe, eta Batzorde Betearazlearen bilkuretan hitz egiteko eta botoa emateko eskubidearekin.
- k. Partzuergoko organoen erabakiak eta ebazpenak betearaztea, beste organo batzuei eman ez bazaizkie, eta organo horiek espresuki eskuordetzen dizkioten eginkizunak bere gain hartzea.

HAUTAGAIEN BETEKIZUNAK:

Hautagaiek, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean, baldintza hauek bete beharko dituzte, eta lan-kontratua formalizatu arte eutsi beharko diete, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuan jasotzen den bezala:

1. Nazionalitatea:
 - a. Europar Batasuneko edozein estatu kideetako herritarra izatea.
 - b. Nazionalitatea edozein dela ere, Europar Batasuneko estatu kideetako herritarren ezkontide izatea, betiere zuzenbidez bananduta ez badaude. Era berean, baldintza berberetan parte hartu ahal izango dute beren ondorengoek eta ezkontidearen ondorengoek, baldin eta hogeita bat urtetik beherakoak badira edo adin horretatik gorakoak eta mendekoak badira.
 - c. Betekizun hau betetzen dute Europar Batasunak izenpetu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunen aplikazio-eremuan dauden pertsonak, langileen zirkulazio askea aplikatzekoa denean.
 - d. Halaber, aurreko lerrokadetan jasota ez dauden baina legezko bizilekua Espainian duten atzerritarrek.
2. Adina: hamasei urte beteta izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina ez gainditzea.
3. Zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.
4. Diziplina-espeditente bidez edozein administrazio publikoren zerbitzutik, administrazio horiei lotutako edo haien mendeko organismo publikotatik edo autonomia-erkidegoetako konstituzio- edo estatutu-organismoetatik bereizita ez egotea, eta ebazpen judizial irmoaren bidez enplegu edo kargu publikoetarako desgaitasun absolutu edo berezia ez izatea.

5. Beste estatu bateko herritarra izanez gero, desgaituta edo egoera baliokidean ez egotea, eta diziplina-zehapenik edo baliokiderik ez izatea, bere estatuan baldintza berberetan enplegu publikora iristea eragotziko dionik.
6. Unibertsitate-titulua izatea.
7. Lan-arlo guztietan (ahoz zein idatziz) euskaraz jarduteko gaitasun osoa izatea, eta gaztelania eta ingelesa behar bezala menderatzea. Egiaztapen-tituluak kontuan hartuko dira, baina performazio bidezko ebaluazioa ere egingo da. Euskaraz gutxienez C1 maila erakutsi beharko da; gaztelaniaz eta ingelesez, gutxienez B2 maila.

HAUTAGAIAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK:

Lanpostua beteko da aurkeztutako curriculum-dokumentazioan eta bereziki honako ezaugarri hauen balorazioan oinarrituta:

- a. Berrikuntzan, gizarte-eraldaketan, adimen kolektiboa sortzen, kudeaketa/ikuspegi estrategikoa lantzen edota lankidetzaren sareak eraikitzen egindako ibilbide profesionala, ekoizpenean nahiz irakaskuntzan.
- b. Lidergo partekatua eraikitze gaitasuna, taldeak koordinatzeko, negoziatzeko, komunikatzeko, eta Partzuergo ordezkatzeko, batez ere administrazio publikoen eta sektore publikoko erakundeen aurrean.
- c. Euskararen ekosistema ezagutzea.
- d. Beharrezkoa den unibertsitate-tituluz gain, beste titulazio, profesionaltasun-ziurtagiri, graduondoko ikasketa, master eta/edo hobekuntza-ikastaroak ere baloratuko dira, lehentasuna emanaz hurrenkeraren arabera esparru hauei: humanitate digitalak, teknologia, eta teknika.
- e. Frantsesa jakitea.

LANPOSTUAREN KOKAPENA. Gipuzkoa. Hasiera batean, Errenterian.

2021eko irailaren 23an



Mikel Irizar
Lehendakaria

badalab

HIZKUNTZA ETA GIZARTE
BERRIKUNTZA